

EUSKAL HERRIKO EMAKUMEOK

BERRIZ MARTXAN!!!

2005eko MARTXOAREN 8AN, berriz ere emakumeok Euskal Herrian, indarkeria, txirotasun, bazterketa, ikusezintasunaren...kontra gabiltza. Milaka emakume mundu zein herri mailan antolatzen ari gara, emakume guztion artean alternatiba sozialak, politikoak, hezkuntzakoak, laboralak eta kulturalak sor ditzagun; berdintasun, justizia eta errespetuan oinarritutako beste mundu bat posible baita.

Gaur, martxoaren 8an, **GIZATERIARENTZAKO EMAKUMEON MUNDU GUTUNA KALERATZEA** ospatu nahi dugu; Mundu Martxaren Nazioarteko V. Topaketan, Kigalin (Rwanda), onartu zena, alegia. Gaur Brasilen, Mundu Gutunak munduari bira hasiko du 40 herrialde baino gehiago, Euskal Herria barne, zeharkatuko duen errelebu martxan. Helburua argia da, Gutunaren edukiak eta honek adierazten duena sozializatzea. Mundu Gutun hau sortzeko mundu osoko emakume taldeok hartu dugu parte eta bertan gure proposamen eta nahiak jaso dira, emakumeenganako askatasun, berdintasun, elkartasun, bake eta justizian oinarritutako mundua lortzeko.

Honez gain, **EUSKAL HERRIAN BIZI GAREN EMAKUMEOK**, hemen jaio edo edonondik etorritakoak, langabetuak, lan anizdunak eta esplotatuak, lesbianak, dispertsatu eta kartzelaratuak, txiroak, ezintasun fisikodunak, sexu langileak, etxekoandreak, gazteak, nekazari eta abeltzainak, zaintzaileak, jazarri eta eraso izandakoak, abokatuak, pentsiodunak, ekonomilariak, intsumisoak, artisauak, ekologistak, euskaltzaleak, politikariak, sindikalistak eta feministak... gu emakume guztiok, diskriminatuak, jazarpen eta erasoak pairatu ditugunak, antolatu eta bilduko gara eta emakumeok izateagatik zuzen eragiten digunari buruzko ideiak, informazioa eta alternatibak elkartrukatuko ditugu; honela, denon bizilekua den Euskal Herrian gertatzen diren eskubideen haustura eta diskriminazioei amaiera eman ahal izateko.

Gaur Mundu Gutuna kaleratzea ospatzen ari gara eta bertan, gure nahi eta alternatibak adierazi ditugu, baina honez gain, eztabaidan eta gure Gutun propioa sortzean **EUSKAL HERRIAN , EMAKUMEON ESKUBIDE ETA ALDARRIKAPENEN GUTUNEan** hain zuzen, aktiboki parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu. Emakumeok hemen eta orain exijitzen dugun aldaketa soziala azkartzeko, gure salaketa eta aldarrikapenak bateratu behar ditugu; jendartearen esparru guztietan gure bizitzak diseinatu, mugatu eta moldatzen dutenen aurrean, komunikazio eta presio erreminta gisa erabiltzeko.

GLOBALIZAZIO MATXISTAREN AURKA,

IRAULTZA FEMINISTA!

Arabako Emakumeen Asanblada, Bilgune Feminista, Fórum Feminista María de Maeztu, Eginaren Eginez, Gaztelesbos, Komite Internazionalistak, Mugarik Gabe, Lurberritua, CCOO, ELA, ESK, LAB eta STEE-EILAS.